

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

129n. Zenbakia

Jorrella
Aprilla
1989



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



MUNGIA:
KEPA DEUNAREN
ELEIZEA

GOMUTAZ

LARRAKOETXEA'TAR EDURNE (G.B.)

EZTANDA

Aurtengo urterillaren 4'an, Begoña'ko Andra Maria'ren eleizan, Bizkaitarren Santutegi Nagusian, Edurne Larrakoe-txearen aldeko illetea izan zan. Igazko abenduaren egun tamalgari baten il zan Inghlaterra'ko egazkin baten, bertan ipiñi eben lerkai batek eztanda eginda.

Negargarria izan zan jazokizuna eta egazkiñen iztripuetan jazoten dan lez bertan joiazan guztiak il ziran. Oneitariko bat, egazkin aretako azafatea edo egazkin-neskea zan Edurne, Bilbo'tarra eta Bilbo'n salketa etxea dauan Larrakoetxea jaunaren arreba.

ILLETARA

Iru abadek esan eben mezea, Aresti jauna buru zala. Onek ezkondu eban Begoña'ko Eleiza onetan Edurne, baimen berezia lortuta, protestantea zan gizon aleman bategaz, orain amar urte dirala. Sakonak dira jaunaren asmoak! Bateratzearen eta banatzearen ezkutukia! Ezkondu eban abadeak berak egin bear izan eban Edurne'ren illetako eleizkizuna.

Eta egin be ondo baiño obeto! Barri Onean agertzen dan Berbizkundera izan eban gai bere itzaldian eta sei minututan maisuki ta samurkiro azaldu eban gaia.

Edurne gure arreba ona berbiztu egingo da. Sinistu dagigun: Jesus'ek Marta'ri esan eutsozan berben arauz: "Neu naz berbizkundera ta bizia; nigan sinisten dauanak ez dau eriotzarik ikusiko, neuk berbiztuko dot azkenengo egunean".

Idaz-lan au izenpetzen dauanak eta Begoña'ko Txanburu dan Alkorta'tar Fernando'k lagundu geuntson altaran baterako mezea esaten. Larrakoetxea'ren adiskide nintzala-ta urretatu nintzan Begoña'ra mezea esateko eta baietza artu neban.

ATARIAN ETA BARRUAN

Begoña'ra eldu nintzanean, Santutegiko ateartean Edurne'ren nebea ta senarra aurkitu nebazan. Nebeari euskeraz esan neutson: "Laguntzen zaitut atsekabeen. Gero Inghlandarrari ingelesez esan neutson: "I accompany to your grief".

Eleiz-gelan eleiz-mutila egoan eta esan neutson:

—Zu abadea izango zara?

—Ez. Ez naz abadea. Seme-alaba askoren gurasoa baiño!

—Ori! Ori! Orain olako gitxi dagoz.

—Zure abotsa ezagutzen dot nik! Igandeetan, Deustu'ko Pasiotarren eleizatik irratiz egiten dan mezan entzunda-edo!

—Oker zagoz! Ni Euba'ko Pasiotarren Lauaxeta Ikastolan bizi naz.

Itxuraz 40 edo 50 urteko baserritar sendokotea zan guraso onek, illetan oartzaille-lana egin ean: Parrokoak idatzitako sarrera egokia irakurri eban baiña irakurri barik eta bere-berea balitz lez eta abestiak be ederto abestu ebazan, trebetasun aundiagaz. Neure artean esan neban: Zelan ikasi ete dau baserritar onek ain ondo abestuten!

Meza-erdi ostean txistua jo eben. Goi argizko soiñua zirudian!

BASAJAUN IL JAKU

Altuna ta Mendiola'tar Josu (Basajaun) be bizitza obara joan jaku.

Edurne'ren illetara joateko neure etxetik urteteko nengoala, lekaidelagun batek auxe esan eustan:

—Zu! Josu Altuna, Basajaun, il da.

—Ez da izango!

—Bai-bai, ementxe gaurko izparringian datoz bere iru il-txartel. Ondo ezagutu neban Bizkai'tar zintzo au. Gazteagoa zala uste neban baiña il-txartelean agertzen zan bere adiña: 80 urte.

Bere idazterako garra, bere erriz-erri ibilteak, bere kondaira ta mendiai buruzko jakituria gogoraturik eta albistarietan naiz aldizkarietan irakasten egin dauan lana kontuan dodala, gai oneri buruz liburu bat be idatzi ebalakiñik, ezin itzi neure esker ona agertu barik. *Agur* asterokoan eta *Zer* illerokoan ainbat lan irakurri doguz, berak idatziak.

Autodidakta edo bere buruaren irakasle izan zan Josu, Trueba gure idazlariaren antzera.

Bein *Zer* aldizkarian Unamuno'ren aurka agertu zan eta nik erantzuna emon neutson Unamuno'ren buru argia goratuz. Josu Altuna'k dedu aundiz erantzun eustan eta berak euskerearen alde ez egozanak ez ebazala onartzen esaten eustan.

Bizkaitarren aldetik iñor entzutetsu ta txalogarri ba' da, olako bat gure Basajaun dogu.

ABERRIA

ABERRI-EGUNA

Laster datorru urteroko jai alai ta gogoangarria: Aberri-eguna, Ori dalata, aztertu dagigun aberria zer dan eta eskatzen dauzan zeregiñak, zeintzuk diran.

Aberriagaz daukaguzan egin-bearrak betetea, giza-izaerak eta fedeak berak eskatzen daukun gauzea da eta egin-bear orreik zintzo beteten ez dauzana ez da abertzalea, arlo onetan berekoia baiño.

ZER DAN

Lenengo itauna orixe litzake arlo onetan: aberria zer da?

Sarritan aberria ta laterria ez dira bereizten eta illuntasun aundia sortzen da jokabiderako. Illuntasun au gutzat alboko laterrietatik etorri da, laterriak izanik aberriak izatea nai leukelako: Iparraldean eta egoaldean daukaguzan laterrietan aberri bat baiño geiago dagoz eta geure aberria laterri bi orrein artean zati bitan bananduta daukagu.

Laterria ez dan lez, bardin esan bear dogu aberria ez dala norberaren erria edo jaioterria, erri askok osotzen dabe aberria.

BEREIZTASUNAK

Aberria berez beti alkarragaz bizi gura daben erriak osotzen dabe, baiña kontuz! batzutan aberri bakarra izan arren, albo-errien jokoak dirala-ta, alkar-gurari ori zapuztu egiten da. Tamalgarria! Orixe da gaur Naparroa ta beste egoaldeko eskualdeen arteko arazo mingarria, napar asko aberkideak jakuzela, gugaz aberri baten alkartu nai-ezik dagozelako.

Aberriak kondaira izaten dau, bere sortzetik asi eta gaurko egunetara datorren alkarragaz bizi izandako "historia".

Sarritan aberriak enda bat izaten dau eta ori toki-

-izenetan, abizenetan, izkuntzan eta olakoetan agertzen da. Odolean eta gorputz-eran be bai.

Erlejiño arazoan be, aberri bakoitxak bere erlejiñoa dauka edo beste batzukaz batera erlejiñoa ba'dauka be, bere erara biziten dau.

Izkuntza izaten da aberriaren berezitasunik txukunena, or agertzen da abenda, jakintza, oiturak eta abar... baiña izan leitekez aberri bat baiño geiago izkuntza batekoak baita aberri baten izkuntza bat baiño geiago.

Ezaugarri oneik ez dira ba, banaka, zurrak. Aberria non dagoan jakiteko norabide lez artu bear dira.

Azkenez, aberriak laterri bakarra izan daike, baiña au be ez da bearrezkoa aberria aberri izateko. Laterri baten aberri bat baiño geiago edo aberri baten laterri bat baiño gaiego izan daiteke, naiz aldi baterako naiz irauteko.

*

IZADIZKOA

Aberria ez da ba, gizonen gurariz sortutako gauzea, laterria dan lez. Aberria izadian berez sortua da eta, fededunentzat, sortzaille Jaungoikoa dala. Ondo esana da Errien Sortzaille dala Jaungoikoa.

Aberria geuk ez dogu asmau, aurkitu egin dogu. Geuk ez dogu aukeratu, goitiko ardureak gu ortxe sortzea nai izan dau, beste enda edo erri baten sortuak izan giñaken lez.

Aberriak sendiaren antza dau geiago laterriarena baiño.

EGINBEARRAK

Aberriari itzaltasun aundia sor jako eta aberri-iltetari "genocidio" izena ezarri eutson Batikano II Batzarrak eta gaiñera "giza-ilte" ikaragarria dala esan eban.

Bere eskubideak munduan zaindu ta aldeztu egin bear dira: Bere izkuntza, bere erri-oituren aberastasuna, bere jakintza, agintaritza osoa nai ba-dau, eskuratzea...

Guztiok gagoz ba abertzaleak izatera beartuta.

GURE ERRIKO JAIK

Gure erria Zornotza da eta bere jaiak uztailean dira. Uztailaren amabostean asi eta ogetazazpian amaitzen dira. Niretzako oso dibertigarriak dira. Amabostean arratsaldean jaiari asiera emateko tzupinazoa botatzen da eta olan asten dira erriko jaiak.

Tzupinazoa plazan izaten da, jende asko batzen da pregoia entzuteko. Balkoitik gozokiak, globoak eta beste ainbat gauza botatzen dabez. Gero erraldoiak eta buru-aundiak urtezen dira eta ume guztiak korrika asten gara, danok oso ondo igaroz.

Gero gauean umeak baiño gazteak disfrutatzen dabe geiago erromeri eta gau pasa egiñez.

Amaseia egunik garrantzitsuena da, "Karmen" eguna, Karmenak diralako gure erriko jaiak eta bera da gure zaindaria. Egun onetan Larran izaten da jaiak eta goizean, Jon Bautistaren eleizaren kanpoko aldean meza bat egiten da.

Meza onetara Zornotzako eta beste ainbat lekutako jendea joaten da. Mezaren ostean gure erriko "Udabari" dantza taldeak egiten dau dantza.

Asteko beste egunetan ez da gauza andirik egoten, futbito partiduak, saskibaloioak eta abar.

Urrengo domekan "Dantzarien eguna" izaten da, leku guztietako umeak eta gazteak etorten dira dantza egiten: Durangokoak, Lemoakoak, Gernikakoak... eta zelan ez Zornotzakoak. Ume guzti orreik etxeetan jaten dabe eta etxe bakoitzera bi edo iru ume joaten dira jatera. Gero arratsaldean ere dantza egiten dabe erri guztitik zear.

Gauean beti lez erromeri bat, danok dantza egiteko.

Ogetalaeuan, "Santiago" bezperan, umeen tanborrada izaten da. Au zazpiretan asi eta naiko arin amaitzen da. Ogetabostean "Santiago" eguna, aitita-amamen eguna izaten da. Bazkari bat egiten da oneentzako eta dantzaldiak egiten dira, aitita-amama guztiak oso ondo igaroz. Gero opari bat emoten deustie bakoitzari.

Gauean su-artifizialak egoten dira. Ogetaseiean "Santana" eguna umeen eguna izaten da. Erriko parkean jolasak eta dibertitzeko gauzak egoten dira umeentzako. Gero jolasa obeen egiten dauanari opari bat emoten deustie. Gauean urte guztietako nagusien tanborrada izaten da, kañoiagaz, tanborruekin, sukaldariekin eta abar. Tanborrada onetan gazte askok parte artzen dabe. Emen umeak, gazteak, nagusiak, zaarrak eta danak oso ondo igarotzen dogu gau ori.

Zornotza'ko Korralak urtero eratu izan dau leiaketa bat nok obeto idatzi eskoletan dabilzan neska-mutikoen artean. Urte batzuetan olerki leiaketa izaten da, beste batzuetan prosazkoa. Gai bat ipinten jake danentzat bardiña. Igazkoa "Gure Erriko edo Zornotza'ko Jaiak" izan zan. Lan ugari jaso genduzan bertoko gazteak idatzita. Aldizkarietan norbere lantxoak ikusteak beti ekarri daroa poza, eta poz onek beste batzuk be adoretu egiten ditu beste orrenbeste egitera.

A. ONAINDIA

Gau onetan beste lekutako jende asko etorten da tanborrada ikustera eta erromerian ere jende asko egoten da gau onetan.

Azkenez ogetazazpia "Santanatxu" eguna gure jaien azken eguna da. Egun au pozgarria eta penagarria da. Egun onetan ez da gauza askorik egoten arratsalderarte.

Arratsaldean karrozak egoten dira. Jendea karnabal egunean bezela trapu zaarrez mozorrotu eta erri guztitik zear desfilatzen asten da. Gero saria emoten deustie obeen mozorrotu diranei, Gauean amabiak inguruan "Santanatxu" zerura joaten da globoz beterik.

Gau onetan erromeri luzeagoa egoten da eta beste eguneko goizean jaiari amaiera emateko bolandera andi bat botaten da eta olan amaitzen dira gure erriko jaiak.

Zornotzako jaietan jende asko egoten da bai Zornotzako eta beste lekuetakoa ere. Jende geiena egun oneetan etorten da: Karmen egunean, meza entzutera, "Santiago" egunean, suak ikustera, "Santana" egunean, tanborradara eta "Santanatxu" egunean, karrozetara.

Zornotzako jaietan gazteen taldeak egoten dira eta talde bakoitza jantzi desberdinekin joaten da. Jaietan saltzaileak ere badagoz eta eskumuturrekoak, belarritakoak eta olango gauzak saltzen dabez.

Egun oneetan sokamuturrak, pelikulak, txapelketak, txokolatea txurroekin, barrakak eta tonbolak ere egoten dira. Era askotako barrakak eta tonbolak dagoz. Barrakak eskalestria, zaldiak, dragoia, ranea eta autoak osotzen dabez, batzuk aundientzako eta beste batzuk txikientzako dira.

Tonbolak ere desberdinak izaten dira batzuk eskopeta batez diana bat jo, kamelu bategaitik apostu egin edo txartel bat erosi eta gauza bat tokatu aal jatzu.

Nik erriko jaiak oso ondo igarotzen dodaz. Naiko berandu joaten naz etxera. Baiña oraingo urtean garrantzitsuak ez diran egunetan ez da gauza askorik egon baiña olan eta guztik nik jaiak oso ondo igarotzen dodaz eta pentsatzen dot besteok ere ondo igarotzen dozuezala.

Oihana Zabala, 7.º.B. maila
Gure Karmengo Ama ikastetxea

EUSKERAREN ZORRITXARRA

Tranbia zaarra soldaduz gaiñezka zijoan goizeko zortziretan kuartelera bidean. Danak euskaldunak. Danak euskeraz. Baiña guztia ez zan soldaduen kaki-kolorea; bazan urdiña ere, bi soldadu falanjisten urdiña, ugal beltzekin. Gerrian pistola; beltza ura ere, euren arpegi-kerea bezela.

Bi mutil gazte eta lerdanak.

Ikasiak ziruditen. Ikastola Nagusikoak edo... Bat-batean, garraxi bizian asi ziran onela kantari:

"Los separatistas vascos no lo pueden remediar si se juntan tres o cuatro, empiezan a rebuznar. La cucaracha, la cucaracha..."

Guztiok mutu. Adorerik ez bikote arreri aurpegia emoteko. Armak ere eurok bakarrik eukazen; agintaritza, zer esanik ez.

Tranbia zaarra eriotz-erria zirudien soldaduen ixiltasunez; kurpil-txirria eta falanjisten zaratak, an ez zan besterik entzuten.

Eldu gintzan kuartel-ingurura eta utsitu zan tximistargizko gurdi ura. Falanjistek aurrera euren bidean...

* * *

Kuartelean sartu nintzan Jefatura zeritzan lan-gelara. Nere beste bi lagunak eta ni, euskaldunak guztiok. Gure alferez nagusia, berriz, erdalduna euskaldun batekin ezkondua. Ona eta apur bat iñuzu.

Agertu neutsoen neure laguneri bidean zer gertatu zan: euskera eta euskaldunen aurkako gorrotoa disimulatu ezin. Geure izkuntza kinka larrian ikusten genduan...

Goiz-erdian bidaldu ninduen aldameneko Mayoría zeritzan ofizinara agiri batekin. Bertan sei lagunek egiten zuten lana: sarjento eta kaboak lau soldadurekin.

Bertara sartu nintzanean, kaboak zutituta eta orpoak alkarri jota, onela eraso zidan, eskua buru-gaiñetik luzatuz falanjisten erara:

"—Fulano, ha caído Bilbao. ¡Arriba España!"

Lege-gizona zan Valencia'tik alde egiña: kaki-jantzitik alkondara urdiña, falanjisteeana, ikusten zitzaion. Uliá eukan kirrua eta baltza, bere gorputz txikiaren antzera.

Eman zidan amorrugaz, jira-bira egin eta alde neutsoen, atea indarrez itxita. Bitarte orretan gure alfereza bere nagusiarengana eioan ipurdia dantzatzuz.

*

Sartu nintzan geure lan-gelara onela esanez:

—Bilbo erori da.

—Eta, "cinturón de hierro" a zertarako izan da...?

—Goikoetxearen iruzurraren ondoren ezertarako be ez.

Aurpegiak luze, sorginduta bezala... Turuta-otsarekin esnatu giñan: "Generala" jotzen asi ziran.

—Generalak zer esan nai daben?

Lanak eta biarrak bertan laga eta danok, kuarteletiko nagusiarengandik asi eta sukaldeko txorengaiñako guztiak, patioara jetxitzeko, bakoitza bere postura...

*

Lau alde zituen geure kuartelak eta erdian enparantza aundi bat, soldadu-ariketak egiteko. Olakoetan antxen biltzen ziran kuarteletiko zortzi konpañiak.

Iru lagunok langelako kurtiñapetik begira gengoan. Lau aldeetatik soldadu-moltoak irten zuten arin-aringa bakoitza beure tokira, zortzi konpañiak osatu arte. Gu iruroen tarteak utsik zeuden, baiña zarata aretan ez zan iñor konturatu.

Gure jefeak ekin zion su-eta-gar:

—Ha caído Bilbao y con él ha muerto el separatismo vasco que unido a la horda roja... ¡Viva España. Arriba España. Todo el mundo a la manifestación Rompan filas!

Kuarteletik Urira bitarteko bide zabal eta bide-txigorak soldaduz bete ziran urjola baten antzera...

Oraindik ere, apur batean, bertan gelditu giñan, lan-gelan, kuartela utsitu artean. Guardian zegoan soldaduak, besterik ez zan iñor ikusten. Bazterrak utsik.

Aizkenean geuk ere urten genduan. Irurok alkarri begira. Tristura biotzean... Bilbo zan geure itzaropena eta uts egin deusku... Geureak egin jok...

IPUIÑA

Egal batetik sartu giñan urian, barruko biotzetik alde egiñaz...

Jateko ordua zan, eguerdia, eta bakoitza bere etxera.

Erdiko kaleetatik orrua zetorren, laiñoetan zear, zarataka:

"Cara al sol con la camisa nueva
que tú bordaste en rojo ayer
me hallará la muerte si me llega
y no te vuelvo a ver...
Arriba escuadras a vencer
que en España empieza a amanecer.
Viva Franco. Arriba España."

Negarrezko illunpeetan sartu zitzaigun gogoia. Zer etorkizuna izango ote zan geurea...?

Lenengo zubitik pasa nintzan uriko Zaarrera; an bizi nintzan Etxague kalean alargun baten etxean. Ostatu antzera artu ninduen eta ogorleko bat, duro bat, bost pezeta, ordaintzen neutsozan iru otordu eta loagaitik.

Alarguna eta segururik gabea. Alaba lanik gabe eta onen senarra frentera indarrez eramana. Kopia egiten zituen alabak ogi-bidez. "Al paredón o al frente" esan ziotenean senarrari, onek aukera egiten ez zuan lanik izan. Biziarengaitik bizia arriskatu bear. An zebillen gizarajoa "voluntario" ...

Iru bizitzarako maillak igo nebazan astiro-astiro. Goibel nentorren. Euskera eta Aberria ikusten nebazan zapalduak, oinpetuak... Etxe-barrura sartu nintzanean, etxeoandrea topatu neban negarrez, begietatik malakoak zeriola:

—Zer dozu, etxeoandrea?

—Zera, ogei ogorleko kendu didatela.

—Lapurrek?

—Ez dira lapurrak izan.

—Zer izan dira ba? Nor zan edo nortzuk ziran?

—Polizikoak.

—Polizikoek lapurretan?

—Zigorra izan da.

—Okerkeria egin dozu?

—Ez, neure nebarekin berba egin dot.

—Komunistia al da?

—Ez. Bestela, euskalduna da eta aspaldian ikusi gabe nengoen; euskeraz obeto egiten dogu erderaz baiño, eta "kaixo, ene neba" esatearekin batera, an mai batean zegoen bi gizonek jeiki eta onela esan dautsoe.

—No ha visto usted los letreros de "Si eres español, habla en español" Ahora mismo pagará usted cien pesetas de multa...

Eta ori esaterakin batera il onetarako neukezan diru-txuak kendu dizkidate. Zer egin bear dot orain...?

Urte luzeak pasa dira arrezkero.

Aberria eta Euskera zapal dutako zapaltzailleak, nun dozak gaur...?

Erriak egin dau Euskeraz.

Erriak eutzi dautso Euskerari.

An ezta egon elkarterik, ez Euskaltzaindiarik, Erria baizik...

Erriak eutsi dautso Euskerari eta Aberriari Euskera-ren bitartez eta berak eutsi bear ko dautsoe aurrerantz be...

Erria galtzen ba da, beste aberastasun guztiak galduko dira, bai Alderdiak, bai Jaurlaritzak, bai Euskera-zaindiak... Beste inork ez ditu salbatuko ez Euskera eta ez Aberria.

Erri-euskera galdu ezkeroz, agur ainbeste nekez eta ainbeste naaspillaz sorturiko Batua, guztiak galduak dira.

ERREKALDE



AITA LARRAKOETXEA'RI

P=

UME ERBESTERATUAKAZ

Aurretiaz adierazota egoan lez, joan zan bagillaren 12'an egin jakon Zornotza'ko Lauaxeta ikastolan omenaldia Bedita Larrakoetxea aitari.

Egun orretan alkartu ziran ikastolan 1937 'an erbestertuak izan ziran sasoi aretako umeak, gaurko andra ta gizonak. Pozez egin eutsoen omenaldia aita Larrakoetxeari.

Zergaitik?

Zio bi egozan orretarako: Alde batetik Bizkai'ko Foru-Aldundiak Larrakoetxea'ren aunditasuna goratu ebalako, beronek euskal kulturari ta euskereari ekarri dau-tsezan ditzira ta indarragaitik. Beste alde batetik, atze-riakaz izan ebazan artu-emonakaitik: Gure Larrakoetxea ume erbestertuen bizilekuan irakasle izan zalako Weston Manor'en, Wight ugartean, Ingalaterra'n. Gero Argentina'n bizi izan da, Euskal-lana aiztu barik.

EGUN POZGARRIA

Dana egin zan egitarauak iñoanez.

Orduan, 37'an, umeak zireanak, orain 50 urte inguru daukez eta berebil aundietan etorri ziran geienak, bizkor, pozik eta alai Ikastolaren zelaietara, Amabietan mezea egin eben, eraspenez eta euren arteko buruzagiak berbaldiak be egin ebezana. Gero bazkari ederra egiñaz amaitu zan jaia.

Larrakoetxea bera ez zan agertu omenaldira: 94 urtekoa da edo edonora joateko ez da gauza. Bere Lekaide-etxean geratu zan, Oñate'ko Agustindar Laterandarren etxean.

Egualdia, udabarri aurreratuari egokiona izan zan, eguzkitsua ta ederra. Eguerdi-ostean, laiñoak agertu ziran baita odei-otsak entzun be zarata ikaragarriaz, euria, lambroa edo sirimiria agertu zan eta illuntzea lorrindu.

Alan be, guztiak pozpozik igaro eben egun osoa ta zazpiretan txori bakoitxa bere abira joan zan.

*

ITZULTZAILLEA

Aita Bedita Larrakoetxea'k euskal-arloan lan eder eta txalogarri bat egun dau, eroapen aundia ta trebetasun ikaragarria, euskerearen sakontasuna jakitea ta inglan-deraz ondo itz egitea eskatzen dauan lana: Berak baka-rrik Shakespeare'ren antzerki-lan guztiak euskeratu dauz. Laterri artean ospetsu diran elerti-lanak euskeratzea lan txalogarria da benetan, euskerea bera be aberastuta geratzen dalako.

Itzultzaille onek darabilen euskerea Arratia'koa dala entzun dogu sarritan, baiña ez dogu uste ori geiago zeaztu barik esan daitekenik: Ez da Arratia'ko euske-rea, Bizkai'ko idazlerik geienak darabilen euskera apain-dua baiño.

Jakiña, ba'dauz liburu orreitan Arratia'ko esaldiak eta bitxiak, baiña ez bertako izkerea darabillela esateko bestean. Euskerea landu ez daben arratiarrai gatx egin-go jake Aita Bedita ren euskera garbia ta txukuna uler-tzea, baiña euskerea landu dabenak, asikera apur ba gogor egiten ba'jake be, laster elduko dira errez ulertzera.

BESTE OMENALDI BAT

Zeanuri'n, bere jaioterrian egin jakon, 78n.urtean uste dot, beste omenaldi bat Aita Larrakoetxea (Bedita)'-ri. Berbaldi ederrak izan ziran egun aretan Zeanuri'ko Plazan, baiña bat gogoratu bear emen, Aita Olaso edo Alberto Onaindia'k egin ebana, gomutagarritz betea eta entzuteko atsegiña.

Bizitza luzea ta zoriontsua opa dautsagu Larrakoe-txea'tar Bedita adiskideari.

EGILUZE ta GAMIZ'ek



BATAGAZ ALA BESTEAKAZ...?

Gai minbereaz agertu yakun, Kamiñazpi, aldizkari onen Otsailla'ko zenbakian.

Lan aretan bere eretxi asko diñoz eta anka bata alde batean eta, beste ankea beste aldean, ur bietara jokatzen dauala dirudi.

Ez dakigunik ezer bere ez diño eta, idazlan arek, ez dau merezidu aintzat artzerik bere, baiña erdi-azturik izan doguzan lorrinkeriak barriztetan dauskuzanezko, zeozer erantzun-bearra ba-dot, abertzalea nazanez.

Arzailluz'ik barik Garaikoetxea bakarrik izan izan ba'litz bere, bardin apurtu zatekean, Alderdia, norbaitzuk guztiagaz jabetu-gurea euken-da.

Ez dot uste, Arzailluz'ek, buru izateko gogorik iñoz agertu izan dauanik: Beti esan izan dau, bere eginbearra Unibetzidatean dagoala; baiña, Alderdiak egin daroanez, demokraziaz aukeratua izan zan eta, naiz-ta gogoko izan ez, Alderdiari ezetza emoteko zio aundien bat izan bear.

Antxiñako lurraldeen legea (LTH) ori atxakia baiño etzan izan: Guztiaz jabetugurea. Entzunda nago, bera-gaz Jaurilaritzan lagun izan eban batek urrango au esan eutsola Garaikoetxeari: "Zer dala-ta lurraldeen lege orregaitik aitu-ezin ori, gero be aldatu leiteken legea da-ta?" "Ori ipuiña da —erantzun ei-eutson— ori ipuiña da: Nik neuk alderdiaz jabetu gura dot...". Eta, orain, zer data-ta ibilli da, ba, deskeillaz, Gipuzkoa'ko Aldun nagosia, diru geiago bear dauala-ta? Alderdiari kalteak egitearren leen batera eta orain, bera buru danean, bestera?

"Garaikoetxeak egin izan dauan egiñenik kaltegarriena, Bizkai ko ta Gipuzkoa ko abertzaleak alkarren aurka jartea izan da —esan eustan, bein, gudari izan eta eriopeturik egondako abertzale batek— eta orrek kalteak-kalte egin izan dautsoz Aberriari".

Sabindarra baldin ba'zara, jakin bear zenduke "Euzkadi askean Bizkai askea" esan ebana gure irasleak; eta au bardin beste erkientzat bere; baiña zure eretxiz batek izan bear leuke Alderdiko lendakari, Jaurilaritza'ko lendakari ta leku guztietako leendakari, alderdi arrotzak egin daroenez. Olango agintekeriari ez dau onartzen gure izakeriak, euzkotasunak, gizona. Naikotuta eta ok eginda be ba-gagoz agintekeri edo ditadurakaz.

Euskalerria askatasun-bidean elbururantz aurrera eroatea dogu JEL-tzale Alderdiaren egin-bearra eta Jaurilaritza'rena, Erriari oiñarriak ezarri eta errigintzan geroari begira aurrera jarraitzea: Bakotxak bere egin-bearrak dabez, ba. Ez gaitezkan nekatu, ba, Araudi-zaleak ala askatasun osoaren zaleak zeintzuk daitekezan abertzaleago neurtuten, abertzaleon elburua askatasun osoa dogu-ta.

Azken-ordua arrapaladan eldutako abertzale asko egoan Alderdian eta alangoeri ez dautse asko ardura aberriaren izangoa: Zelango abertzaleak dira, ba, alderdikide izan, alderdikoen aurka zabalkundea egin eta euren autarkiak zitalkiro Alderdiaren aurka, aberriaren kaltez, emon ebenak?

Ez diñot alde batekoak bakarrik errudun zireanik: Alderdi bik guterran diarduenean, biak izan daroez izpideak edo errezoien batzuk. Neuri bere Alderdiaren erabagi batzuk etxataz gogokoak izaten baiña ontzat artu bear izaten dodaz geienak ontzat emonak baldin ba-dira.

Bai Alderdian eta baita alde ebenen artean be abertzale zintzoak ba-dira: Alde bietakoen artean dodaz, nik neuk, adiskideak eta lagunak; baiña ez dot ontzat artzen urleiari, sendiari edo berendiari jarraitzen dautsenen abertzaletasunik: Ez Agirre-zale, ez Axuriagerrazale ez Garaikoetxea-zale ez Arzailluz-zale: Abertzale eta kittu! Gizonak aldakorrek dira baiña abertzaletasuna beti dogu bardiña: Bildur eta ikarak itxi eta arpegia emon bear danean emon, agiñak arakutsi bear direanian bildur bagarik erakutsi eta *askatasun osoa* elburu dogula aurrera jarraitu, arerioen aurrean bildurrez eta koldarkeriz iges egin bagarik.

Leengo abertzaletasunak eta oraingoak ba-dabe aldea! Gu geu, sabindar utsak giñtzazan; abertzale erromantikoak gintekezan, bear ba da; guduan bere aberriaren askatasun osoa gogoan genduala jokatu izan genduan, kikildu barik eta ez Araudi erkin baten geratzeko asmuaz; baiña, orain, ene, orain! Jaurilaritzan, Aldundiak eta abar *aska* asko sortu dira eta abertzaleen artean urdail-zaleak be bai, batean bestean.

Alderditik alde ebenen buruak, eurak *sozial demokratik* direala aldarrikatzen dabe: *Sozial demokratik* dira F. Gonzalez eta aren lagunak bere eta beste leku batzuetako gezartekeri zalean bere bai. Jeltzaleakandik berezkundia bat aurkitu gurea; baiña arein eta gure arteko *benetako abertzaleak* gogai, asmu ta elburu bardiñak doguzanezkero oba genduke alkar ikusieziñak eta lelokeriak itxi eta leen-bait-leen alkartu, Aberriaren onerako.

"Bere bizitzako une guztietan ez daitena, ez da abertzalea" esan eban Arana-Goiri tar Sabin'ek gaur batera ta biar bestera diarduen *abertzaleak*, Euskalerriren kalterako doguz.

AURRE-APRAIZ'ek

MUNIATEGI-TAR SABIN

AIZEA

Aizeak beren esku gogor edo bigunez bizia dakar bizira, orriz orri, legun edota asarre, zerupe goibelez, illun, aldi bereko agergai ta, izantasunez.

Almen indartsuzko argidura ta, sugarrez, suari aizeak bizitasuna damotso, goietan gora duana maitasun txingarrez edertuta, negutar askoren pozerako.

Aizeak itxasoak astintzen dauz aldizka olatuak zatitzen dirala arkaitzetan, bits aparrez bein eta barriro orroaka.

Aizea da izadiaren, gizonaren guna, odola dirakina zanetan, biotzetan aize aldakor, gozatsu edota kutuna.

BARRIRO IZAN

Jaiotza baten antzeratsu asi ezkeru egin deadar, barrurantz edo kanporantza egin alegin eta indar, bazterren batean burutsu eraturik zeure egoitza, ta, ortako toki bat bear tokitxoren bat bedarrean, lurgintzarako balio dauan zerbait. Ta gariburu bat, ta, entzumenean abes bat ta, izangaizko guramen bat.

Bai, barriro nik, goiz onetan asi nai dot neure baitan, eguzki ta ixiltasunpean bazterturik nire tristurea ain sakonki dagona nigan. Gatx egiten jat esatea ni neu nazala argitzea. Gatx, gatx. Baiña aztunak dira aztunak, gabaren betaiñak, itzaldura baltzez egiñak eta, zerbait nire kolkoan dago erasoka, zutuna.

Ondaretik nai dau bai urten, barriro izan ta, sendo eutsi. Arri biurtu aparrezko dorrea nire kanpai apurtua eta nire autserrea.

Maitasuna dot eusgarri, bakar-bakarrik zure aizeak darrai erasoka bildurgarri bizi jarraipenaren etsai.

GOGAMENAREN TXINGARRA

Atzerazko osteratzez ni, neure lengo lengora, barriro itzuli bearko ba-nintzake igarora, nire aintziñako gogo amets-leku, izandakora.

Bearbada orduan, nik, aintziña ibillitako aldi zaar, joanetara jasoko neuke bai biotza, daztatzeke zoro-zoro, alaitasunez, poz-pozik, alako leku, alako amets-aldi zaarretara

benetako atsegiñez urtuz, urteen izotza barriz itzulko nintzake.

Ordea, gerta leike bai, berez-berez joandako itunduraren bat, deslai, autserre artean, antxe (txingartxo baten antzera) estalpean, epelkiro, aintziña baten agergai oraindik an irautea, autserre artean, dirdai.

TXANELTXU BAT DAUKAN GIZONA

Arratsa zearkatuz igarotzeko Gelatzar illun batean Atxikia izan zana, Bein be ezta izango Ugarteko atxilotua, Beste doai batzuen artean Txaneltxu bat daukan gizona.

Gogo sendo, adoretsuz, Lokarri danak azkatuz Jaretsiko dau alde egitea

Iñork berari aurkarik Egiten ausartzen ez jakola Eta, laiñoa urratuz Elduko da bai, bakarrik, Egunsenti ederraren Lurralde maite, azkera, Beste doai batzuen artean Txaneltxu bat daukan gizona.

ONDARRUTARRAK ESTROPADETAN (Liburuaren aurkezpena)

"Abisatu digute guri bilbotarrak
mutillak bear dirala ondarrutarrak,
apartata daudenak ez dirala txarrak,
berez umillak eta jenioz azkarrak."

Orra gaur eun urte betetzea ospatuten dogun "Falua Errealeko" gertaeraren kantu zarrak. Eta ondarrutar bertsolariak, erramularitzaren eskola eta bizitzako lema lakoa agertzen dau lau berbetan.

Berez umillak eta jenioz azkarrak. Esatea lez, patroia-
ren esaneokak, baiña gero erramutan azkarrak, biziak,
senduak, osasuntsuak.

Gero, kantu berbertako beste bertso baten, oraindik
zeaztasun geiagoz agertzen da erramularien flash bat,
erramularien argazki, erretratu on bat: "Kokote ederre-
kuak, gorri belarriak, izarren antzekuak zituzten begiak".

Orra gaur eun urteko ikuspegi bat. Egunari berea.
Parkatu sentikor agertzen ba naz. Baiña gogoratu, len-
go giroan pixkat sartuta, zelako jai eta poz eta umorez
eta arrotasunez be bai ospatuko eben gure zarrak gaur-
ko eguna.

Danok dakigu ondarrutarrak, estropadetan, bandera
zaliak zirala. Beste kirolak, deporteak, bestelako garai-
-ikurrak, trofeoak, eukiten dabez. Estropadak bandera.
Esan be egiten zan: Ondarrun estropada gogoia bero-
tzen zanean, "bandera jartzen zuten eskila torrean, inben-
zible zirala Kosta Kantabrian".

BANDERARIK ZARRENA

Eta Euskalerrian ezagutzen dan banderarik zarrena,
estropadetan irabazia, ain zuzen be, Ondarroan dagona
da. 1865'tik datorrana. Eta ogei ta bi urte geroago, au
da, aurten eun urte, beste bi geiago. Kontuan euki, ez
zirala banderadun estropadak urtero ospatuten.

Esan bear da, noiz-nai alkarren arteko desafiotoak
estropaden barri egonarren, ofizialki eraturako estropa-
dak Donostian 1879 urtean asi zirala, eta 1879 urterarte
ez dagola garbitasunik, eta ba-dirudi, gaurko neurrian
jokatutakoak, 1890 urtetik datozala.

Beraz gure banderak, 1865, 1887 (bi) Bilbokoak dira.
1888'koa, Pasai eta Ondarru arteko estropadakua eta
1898 urtekoa Donostikua.

Au be jakingarria da: Donostiko estropada ofiziale-
tan Ondarroa izan zala lengo gizaldian bandera irabazi
eban Bizkaiko treñneru bakarra.

Eta gero ba, Donosti'n, 1926 urte arte ez da ezagu-
tzen banderarik irabazitako beste bizkaitar erririk Onda-
rroa izan ezik.

Gero, beste 28 urte bear izan ziran, 1954 urtean
beste Bizkaitar bat Donostiko banderagaz jaubetzen asi
urte. Sestao.

Garbi eta arro esan giñei ba, Donostiko estropadak
ofizialki asi ziranetik, 1954 arte, au da, irurogetak urte-
tan, Donostian ez dala ezagutu izan irabazle lez beste
Bizkaiko talderik, birritan Ondarrukoa izan ezik.

Origaitik ez da arrigarri Nikolas Ormaetxea, "Orixe"
izen ordeagaz ezagutzen zan poeta ospatsuak, "Euskal-
dunak" deiturako poema egin ebanean esatea:

Oraingoz ez da Bizkaitik
bildur daragin Ondarru,
aren itzala somatu gabe
lasai Donostiak oi.

Baiña Ondarroan ba dago oizko ez dan beste garai-
-ikur (trofeo) bat be.

Or daukagu leoia. Urte aretan erramulari zarrei esker
on eta omenaldi lez orduan Españaiko erregein zan Kris-
tina andreak emondakua.

Gure zarrak emon eutsen zeregin bat leoiari: lengo
nortasunari eustea, ondarrutarren izateari eutsi eta zain-
du, gorde ta erakutsiaz ezagutuko zana. Onela diño
kantu zarrak:

Bandera eramaten iñor ba da asitzen,
legoia daukagu zaintzen,
legoiak laster iruntsiko du
iñor ba da deskuidatzen.

Eun urteko ospakizunak merezi dau zerbait gogora-
tzea, ez?

"TREIÑERU ESTROPADAK" LIBURUA

Baiña nire zeregiña beste bat da. Aurrean daukadan
liburu onen agerpena egitea.

Ni estropadei buruzko liburu au egiten 1970 ingu-
ruan ibili nitzan. Edo asi beintzat.

Donostiako Aldundiko Artxiboan lenengo. Ango ardu-
raduna, Jose Artetxe, laguna neban, edozetan laguntze-
ko gertu, bai Fausto Arozena be, baiña an ez egoan
ortazko ezer. Oraindik klasifikatzeko egozan bertso paper

mordo batetik, bertso paper bat edo beste eta geiagorik ez. Donostiako Udaletxean zerbait atara neban, eta gero azpaldiko estropadetako eratzaille dan CAT'era jo neban. Ostera batzuk egiñarren, ez neban ortazko kuadernurik eskuraterik lortu. An egoan, baiña norbaitek erabillala. Urteren bateko gora-bera jakin nai ezkerro, idatzi eta erantzungo eustela. Orrela, iru-lau osteretan aitzakia. Gero "Ciaboga" aldizkari zar batzuk erosi nitun.

1890'tik 1965 arteko estropaden zeaztasunak batu nitun, urte bakoitzeko partaide, guztien denporak, irabazle eta abar... eta ara nun 1972 urtean Auñamendi liburu saillak Rafael Agirre Franco'ren liburu bat agertu, bere Deportes Vascos izendun liburuan, eta andik laster, argitalpen txikiago baten bertako "Estropadak" izeneko atala kaleratu.

Orra nire lana, alperriko biurtu, iturri berbertatik atara zitulako Agirre Francok, nik baiña aukera geiagoz, zeaztasun guzti orreik.

Ori ikusita euskera aldetik jokatzea pentsatu neban. Eta estropadei buruz agertu ziran eta billatzen nitun bertsoak batzen alegindu nitzan. Gure errikoak, kanpo-koak eta abar. Ondarroaren aldeko nai aurkakoak. Zergaitik ez? Sekula ez da bildurrik euki bear aurkakoak esan leikezenenik. Norberak zintzo jokatu ezkerro, txikotetik dago errazoia. Origaitik nik, bateko ta beste-koak, danak argitaratzen dodaz, pentsaten dodalako danak jakiteak mesede geiago egiten dauskula, kalte baiño. Gaiñera ez dira nik asmatuak, ez eta eskutuan egon diranak be: liburuetan dagoz edo bertso paperetan.

Eta aurten, Falua erreala eta bandera biren eungarren urtea ospatutcan, pentsatu neban: Zegaitik estropadei buruzko luburu hat idatzi ez, batutako bertsoak agertuaz, ori aide hatetik, eta bestetik Ondarroak parte artu izan dauan estropadei buruzko istori txiki edo argitasunen bat egin eta idatzita lagauaz?

LIBURUAREN ERABIDEA

Pentsatu eta egin. Liburu onetako eun eta piku orrialde, bertso zarrez beteak, dira. Esan dodan lez, batzuk Ondarroari buruzkoak. Besteak beste erriei dago-kiezanak. Estropadak danenak dira.

Beste 50 orrialde inguru, aurtengo Andra Mari jaietan, gu zarrak jaietarako ilusiñoiak galduta daukaguz eta ipini be ez dabe zarrentzat jai berezirik ipinten, etxean iñora urten barik idatzi ta idatzi ekin neutsan Ondarroak irabazi nai galdu zitun estropaden jakingariak batu, tajutu eta idazten.

Billatu neban Bilbon nun argitaratu, nai eta oporraldietan gertatu, eta arrezko zuzenketak egin eta abar, or ibili naz, atzo arte, borondaterik onenagaz nire azpaldiko ilusiñoia bete nairik.

Ni, esateko, Ondarroa zarreko estropadei buruz jarduten naz. Esan lei 1970 ingurutik aldatu dirala zerbait estropaden egitadak. Len baiño ugari eta sarriago orain. Baiña ori, bigarren zati bat lez, beste norbaitek egin bearko dau, gure erri eta beste errietan sortu diran Arraun Elkarteak jo ta ke ari diralako orretan, eta Ondarroan, ain zuzen, zerbait kozkondu eta euren egitasmoak bete dagiezanean, ziur dagozalako lengo ospea, fama, barriro eskuratuko dautsela erriari.

Origaitik ipini dot nire liburua azken orrialdean esaera labur au:

Ondarroa, beti izan da arrantzalea,
arrantzaleak, bere kirola, estropadea.
Len Kofradiak zainduten eban orren legea,
orain Arraun Elkarteak barriztuko dau bere ospea.

Erregu bat. Liburua arretaz, zabal eta patxadaz irakurri. Poztu, gozatu gure aldeko gauzetan, baiña istorian gauzak diran lez agertu bear izaten dira, eta ez garraztu besteak botaten dauskuezan zirikaldi eta zitalkeriekin. Geuk be esan izan doguz eta ez dogu bestienik erantzun barik laga.

Len be esan dot-eta, kontu egin nire liburu au 1970 inguruan amaitzen dodala, uste dodalako ordutik ona estropadak beste ikuspegi bat daukela, eta ba dagozala Kantauriko Txapelketa, Españakoa eta abar lengo denporetan oituten ez ziranak.

Zorionez ba dirudi estropada, galdu nai irabazi, kirol lez ezagutzen asiak gareala. Ori da bear dana. Eta batez be une bateko berotasuna igaro ondoren, gogoratu estropada, gaur, gaztediaren osasungarri eta mesedegarri, eta bide batez, erriaren aintzagarri lez artu bear dogula.

Azken baten, oriotar olerkari baten estropadei buruzko olerki zati bat gogoratuaz amaitu nai dot:

Rau, rau, rau...
orru ta arru arraunak,
estropuak grak eta txirrika,
azkon txanpan,
gure Ondarru estropadetan arru egiteko
indar eta garretan.

AUGUSTIN ZUBIKARAI

OGEI URTE DIRALA...

1968'ko urtean VI-garren Paulo Aita Santuak enziklika "Humanae Vitae" azaldu eban. Katoliko askok ez ebezan onartu bere irakaspenak eta aginduak. Euren artean paper-tintazko borroka sortu zan. Apezpikoak; zillegilariak, abadeak eta oñezko sinistedunak sartuta ikusi giñan borrokan. Ogei urtebete igaro dira.

Egiaz, borroka urte batzuk lenago asia izan zan. Iparrameriketako laboratorioro batean "pildorea" aurkitu zanean. Orduarte Pio XII-garrenaren irakaspena jarraitu izan genduan. Sorpenaurkako gailluak debekatuak ziran. Aldi aretan esizko gailluak baño ez zan ezagutua beste sorpenaurkakorik. Autorantzule danak uste bereko ziran.

Baña pildorea sortu zanean, beste gauza bat zala asi ziran esaten, beraz Pio XII-garrenaren aginduak ez ziran gauza. Paulo VI-garrenak berak gaia sustraiz aztertuteko, ikas-sail bat izendatuko ebalu, argiarazi eben. Baña, bitartean zer egin?

Gure uzia (emakumearena ta bioena) auxe zan. 1958'ko urtean ezkondu izan giñan. 1962'ko urterako seme bi ta alaba bat jayo izan jakuzan. Alde guztietatik itunak etorkidazan emazteak pildoreak artu egiazan. Gure ustez sorpenaurkako danak debekatuak ziran naiz ta pildorea gauza berria izan; eta uste onetan egin genduan. Alan be adiskideak, senideak, ta abarrak eragon euskuen pildorea erabiltea aolkatuten. Naiz ta geuk ituik ez eskatu.

Aolkugille bat osagille laguna zan, eleiztarra bera. Eleiztarra aldi aretan. Gero ausi eban bere ezkontzea ta gaur amorrante batekin bizi da.

Beste bat erlijioso zan. Urte gitxi buruan, ordena ta abadetza lagata, ezkondu egin zan. Gero Gasteiz'ko Jaurlaritzan ibilli da.

Azkenaz, emazteak seigarren seiña izan ebanean, zaindu eban osagille berak, eta seme geiagorik ez ekarteko, agindu egin eutson pildorea. Alan da guztiz, etxeko osagilleak eragotzi eban a artzen. Etxekoaren aolkuari jarraitu geuntson.

Zer esan geinke gaur, ogei urte igarota, ainbeste ezpairen buruan? Eliz Amak agindutakoa egin genduan, eta kitu. Jazorikoa ikusita gero, birritan egingo geunke onelaxe.

Estutasun xamarrean bizi izan gara. Baña estutasuna ez da izan ezea. Ezin izan dautsegu seme-alabei bigunkeririk emon jantziteko, jateko, ikasteko ta abar, euki dabe. Ta ori naikoa da Jaungoikoari eskerrak emoteko. Ondo gizondu dira. Lauk bere ikasketak oztoporik gabe amaitu dabez. Beste biak ondiño ikasten ari dira. Baten batek beñola ikas-urte birritan egin bear dau, baño geiagorik ez. Ez alkoolik, etxean gurasokaz apalak, kristau zintzoak,...

Orregaitik Aita Santuak arrazoa eukala diñogu. Baten batek itaunduten dausku ia zer egin dogun onelako semeak eukiteko. Ez dakigu zer erantzun. Ez dogu egin ezer berezirik. Semeak eukitea Jainkoak aginduten dauen lez. Bere aginduak jarraitzea Elizea Amak irakasten lez... Ezer berezirik ez.

Badakigu semeak zamea dirana. Ez astuna baño. Esaten oi daben bestean astuna ez beintzat. Batzuetan semeen zenbakia mugatu bear da. Ostantzean seiak amabiko osoa izango litzakezan. Ta uriko bizi-etxeak ez dira baserriak baizen aundi. Orretarako berezko eginbideak dagoz. Izadi aurkakoak ez diran ezkerro, euraz baliatu leiteke. Beraz Pio XII-garrenak lenengoz eta Paulo VI-garrenak geroago egokiak zirala zirauskuen.

Naiz ta irakaspene au alde batean utzita, oar-ikasiz esan al dot berezko eginbideak onenak dirala. Ez da bear pildorak artuterik. Ba dakigu emakumearen osasunarentzat pildorak kaltegarriak dirana. Auxe diño orain aspaldian aginduten eben arekek. Gorputz bien artean oztopogaillua ipintea be ez da bear. Egun batzuetan alkar urrundutea bear da. Au atsekabea da. Baña atsekabea eskeintzara biurtu leiteke, ba alkar maitetasuna atsekabeakaz aundituten da.

Egia da baita, berezko eginbideak uts asko —orain, len baño gitxiago— dabela. Baña orduan semea dator, Jainkoaren bedeinkapena.

Tamalez, geienetan gaurko senar-emazteak ez dabe gura semerik. Alde guztietan semejaiotzearen aurka egiten da. Aldizkarietan, telebistan, zinean. Egiptoko amar zigorrak balitzan lez jaiobarri buruz idazten eta egiten da. Jaurlaritzak, aldundiak, Udalak "centros de planificación familiar" antolatzen dabez. Badakigu toki orretan egiten dana: sorpenaurkakoak aolkatutea ta emakume aurdunak aur-galdu eragiten bialdutea. Ta au ondiño debekaturiko kasuetan. Onelan ondatu dabez gure diruak, aginduten dabenak.

Joan dan udan Erkiaga'ren eleberri polita irakurri dot. "Jaioko Dira" dau izpurua. Lekeitio'n azken gudatean jazo ziran goraberak edestuten dauskuz. Ainbeste atsekaberen buruan, mutil bat —alde batekoa— ta neskatilla bat —beste-koa— eskontzeko prest dagoz. Ta semeak jaioko diralako, egilleak dirausku Euskalerrarentzat itxaropena dagona. Ortik izpurua.

Gaurko agintariak beste gauza bat pentsatzen dabe. Semerik ez daiten jaioko al dan guztia egiten dabe. Nora eroan gura gaituez? Euskaldunei semerik ez ba jake jaioko, nok egingo dau euskeraz urte gitxien buruan? Erlojuak salduten dabillen aprikar gajoak?

Teologoa ez naz. Ez dakit ia "Humanae Vitae" azaldu ebanean Paulo VI-garrena oker-eziña zan ala ez. Baña ogei urteok igaro diranean, sei seme-alaba munduratu ta ezi ondoren, arrazoi osoa eukala diñot.

Eskerrik asko Aita Santua ziñean orri! Jaungoikoak sari-tuko al eutsun!

IBANEZ'TAR KARLOS

ARRAIÑA, GURE GORPUTZARENTZAT MEZEDEGARRIA

Zer esaten dauan erriak, sinisten ba'dogu, ARRAIA jatea, gure soiñarentzat MEZEDEGARRIA dala diño.

Ta ondiño geiago, ona baiño ohea dala janari ori.

ERITZI bat oso zabaldua dagonak diño: Arrai jatea oso ona dala ta gure BURURAKO FOSFORO asko daukela; ta arrai OLIOA, ala-ta-be bakailluarena aberatsa dala BITAMINETAN.

Berori bakarrik naiko dala gaixotasun batzuk kentzeko edo onduteko.

Inglaterrako zentzundun esaera batek diño:

ARRAIA SUKALDARATZEN dabenak, ez dauela bear OSAKIRIK.

Beste modu baten esanda: Jan eizu arraiña ugari, ta zure osasuna sendoa izango da.

Nai dozu gauza politagorik esatea? zu ez zarela gaixotuko janari ori sarritan jan eskero?

Danen ondoren ERRIAK dauka errazoia; ta osagille ospetsu batzuk atara dabe ondorengo, ARRAIA guk uste dogun baiño ONGARRIAGO dala edo ongarri aundiak euki leikezela.

Ludian asko zabaldua dagon Aldizkari batek diño arrain asko jaten daben jenteak, lan gitxi emoten datsela osagillei.

Zenbaketa ziñezko IKASKUNTZA batek diño biotzeko gaixoa daukenak. Eunetik berrogeitamarrek arrisku gitxiago daukela ILTEKO, beste guztiak baiño.

Beste osagille batzar baten zabaldutako TXOSTEN batek esaten dau astean birritan edo geiago arraia janari bezela eukiten dauenak BALIO-AURREZKO GARRANTZIA daukala gaixorik ez ekarteko.

ESKIMALEN ARTEAN

Eskimalen leiñu (tribu) onein artean, arraia ugari jaten dabelako egunero, eskuarte dabilrelako, ta naiz ta OKELA ta Urdai asko janarren, ez dabela ugaritzen euren artean KOLESTEROLIK Jaten daben arraiñak, AURKA egiten dautsolako.

Gure gorputzeko KIMIKO ORGANISMOARI mezedea aundia egiten dautso ta oraindik geiago baita beste gaixo batzueri be, Eskimalen artean ez eidago UMOREZKO (reuma) gaixorik eta be ez EZURI MIÑIK be (Artritis).

Jakin bear doguna da, janari ONGARRI onek mezedea egiteko ez dirala jan bear arrain gareztiak, esate baterako: txitxardiñak (angulas), edo abakandoa edo otarrainedo kamartza (langosta) janari oneitariko merkeenak onenak dirala, esate baterako: Arenke, Sardiña, Makaillao ta egaluzeak.

Oneik dirala laguntza aundiena egiten daskuenak.

Euskalerriko lurralde bietan beintzat, jan geinke ugari jaki au, batez be UDAN, itsas aldera joaten garenean uda emoteko.

ITSAS ZABAL AUNDIA DAUKAGU

Gure Jaunak, aintxinetxo aurretik ikusi eban edo ardura euki eban, guri jate au URRI ez emoteko; lur ganean LAU satitik IRU uragaz estaldu ebazan eta bat lurrez.

Zer esan nai dau onek: Jaki-toki aundia ta zabala ipiñi euskun guretzat ez daiten utsik egon jan kontuan.

Orain aurkitzen dan GOSEA gizonaren erruagatik da.

Janaria ugari dago baiña ez dogu banatzen bear dan bezela.

Asko daukenak geiago gura dau, geiago eukiteko, aberastuteko, edo aundikeria agertzeko.

Ori da gure bigurkeriagaitik. Maltzurkeriagaitik edo biotz gogorra daukagulako besteentzat. Ori da orain munduan zabaldua dagon gauzarik ASTUNENA. Orain ez da jazoten lenengo Kristiñauen artean lez. Geiegi eukiten ebanak, ez daukenen artean zabaltzen eben, eta onela ez eben beintzat goserik euren artean.

Daukaguna ondo zabaldua edo NEURRITUTA bai-lego, iñok ez leuke PREMIÑARIK eukiko.

Alan izan daitela.

ETXEBERRIA'tar ISIDOR

LOIOLA'KO IÑIGO'REN LORATXOAK

IÑIGO JERUSALEN'GO LUR SANTUAN

Iñigo'rekin batera urte aretan Lur Santuak ikustazera joan zan alemaniar batek —Felipe Hagen'ek— esaten deusku, iru zorro ondo bateak bear zirala Jerusalem go erromesaldia egiteko: lenengo zorroa diruz betea, bideko gastu ugariai erantzuteko; bigarrena pazientziz betea, turkoak kristiñauai emoten eutseezan tratu txarrak ondo eroateko; eta irugarrena fedez betea, neke eta atsekabe guzti oneik Jaungoikoagatik garaitzeko.

Aldi aretan, jakin bear da, Palestina turkiar mahomatarren menpean egoala, eta ango agintariak Benezia'ko nagusiakin itzarmena egin ebela, urtean bein bakarrik, kristiñau erromesai Lur Santuak ikustatzen izteko.

Jafa'ko kaira, Palestina'n, dagonillaren 21-ean eldu ziran, eta urrengo illaren lenengo egunerarte erromesak ontzian egon bear izan eben, lurrera jatsi barik, erromesaldia zelan egin bear zan turkiar agintariakin konpondu arte.

Azkenean, noizbaten, 100 turkiar armadun etorri ziran 21 erromes zaintzeko!!! Baiña zaintzaille areik diruzale geiago ziran zaindari baiño, eta edozer atxakigatik dirua eskatzen eben.

Zeetasun oneik jakinda ango gora-berak, Iñigo'k erakutsiko deuskuz.

"Jafa'tik Jerusalem'era asto txiki batzuen gainean abiatu giñan, eta Jerusalem'era eldu baino lentxoago -4 kilometro edo— gugaz joian batek esan euskun: laster Jerusalem Uri Santua ikusiko zan lekura elduko giñan ezkerro, egoki izan zala bakotxak bere barrua atontzea, eta orretarako ixilik joatea. Eta guztioi ondo iruditurik, bakotxa bere gogo biltzen asi zan.

Eta Jerusalem ikusteko lekura eldu baiño apur bat lentxoago, gurutzeagaz guri begira egozan fraileak ikusi genduzan, eta asto gainetatik jatsi giñan. Eta Uri Santua ikusteaz poz andia artu neban, baita nire lagun erromesak be".

Alemaniar erromesak bere egunkarian idatzi zuan, iru aste emon ebezan Lur Santuak ikustatzen. Jerusalem'en Kalbario mendiko eleizara sartzeko erromes bakotxak 7 dukat ordaindu bear izan eban, eta gau

osoa egun sentirarte otoitzean eta irakurgai santuetan gogo-berotan emon eben. Erromes guztiak autortu eta jaunartu eben. Iñigo'k beragatik diñosku: "Toki Santuak ikustatzean lurreko ez zan poza nabaitu ebala".

Jerusalem inguruko Jetsemani'ko baratza eta Oliamendia ikustatu ondoren Belen'era joan ziran, Jesus jaio zan errira, eta andik Jordan ibaira. Jesus bateatua izan zan ibaian gure erromesak gorputz osoko bustialdi bat artu gura eben, baiña zaintzaileak, astirik ezaren atxakian, eskuak eta burua bakarrik bustiteko aukera emon eutseen.

Baiña erromesentzat irugarren astea baltzagoa izan zan. Jordan ibaitik Uri Santura itzuli ondoren, Damasko'tik 500 jenizaro, gizon basati armatuak, Jerusalem'era sartu ziran, eta ango kale eta etxeetan bildurgarrizko lapurreta eta ilketak egiten asi ziran... Erromesak ostatzuz egozan San Joan etxean be indarrez sartu gura eben... Larritasun andiak igaro ondoren, azkenean, noizbait, jenizaroak alde egin eben, eta Uri Santuko bizilagunak arnasa nasaigo artzen asi ziran.

Iñigo'k bere "autobiografian" ez deusku olako estutasunen barririk emoten. Loiola'ko txoriak beste zugatz batean eukan bere abia eginda. Berari entzutea izango da onena.

"Nire erabagi sendoa Jerusalem'en gelditzea zan, bertan biartzeko, Toki Santuak ikustatu eta arimai laguntzeko, eta orretarako frantziskotarren Aita Goardian zarentzat "gorantzizko eskutitzak" nekazan. Eskutitz orreik erakutsi neutsazan, eta an gelditzeko neukan gogo bizia agertu neutsan. Baiña arimai laguntzeko neukan gogo ez neutsan esan. Asmo ori ez neutsan iñori agertzen.

Aita Goardianak esan eustan, ni an zelan gelditu neintekenik ez ebala ikusten, etxea ain bear gorrian egoalako, bertako fraileai be ezin jaten emonaz. Eta orregatik gugaz batera fraile batzuk Europa'ra biartzeko asmotan egoala.

Nik esan neutsan, ez nebala ezer besterik gura, bein edo beste ara autortzera etorri ba'nendi, norbaitek nire autortza entzun egiala. Zelan bizi eta non neuk aurkituko nebala.

Orduan Aita Goardianak, olan ba'zan gelditu nein-

tekela esan eustan, baiña Aita Probintziala Belen'era joana zala, eta bera etorri arte itxaron nengiala.

Berba oneikaz itxaropen arturik Bartzelona'ra, pertsona jainkozale batzuentzat eskutitzak idazten asi nintzan, eta onetan Aita Probintziala itzuli zan, eta berba bigunekaz esan eustan, nik Toki Santuetan gelditzeko neukan asmoaren barri jakin ebala, baina gauza ori obeto pentsatuz, eta lenago beste erromes batzuekin jazotakoa ikusiz, ez zala egoki ni an geratzea. Beste askok be asmo ori euki ebela, baiña turkiarrak bata preso artu, bestea il... eta gero erlijiosoak katiguak askatzeko diru asko eralgi bearrean aurkitzen zirala... Eta orregatik urrengo goizean beste erromesekin ontzira joateko atondu bear nebala.

Nik erantzun neutsan, nire erabagia oso sendo artua neukala, eta ez nebala bete barik itxiko, pekatupean ez ba'zan, beintzat.

Aita Probintzialak erantzun eustan: Erroma'tik artutako eskubideak eukazala, berak ondo eritxonak, andik alde eragiteko, eta esana bete gure ez ebenai ezkomunikatzeaz zigortzeko.

Orduan nik erantzun neutsan, ola ba'zan prest nengoala bere esana egiteko.

Toki Santuetan gelditzerik Jaunak gura ez eban ezkerro, Europa aldera urten aurretik, Olio Mendia barriz ikusteko gogo bizia etorri jatan. Olio Mendian arri bat dago. Arri aretatik igon zan zerura gure Jauna, eta oraindiño aren urratsak arrian josita ikusten dira. Eta alan iñori esan barik eta gidaririk artu barik, ixilka, beste erromesengandik alde egin neban, eta Olio Mendira bakarrik joan nintzan (Jakin bear da gidari turkiar barik an dabizenak arrisku andiak jasan bear dabezala). Olibeteko zaindariak ez eusten sartzen itxi gura, eta nik neure idatz-zorrotxoko laban bat emon neutsen, eta neure otoitza barrengo poz andiaz egin ondoren, Betfage'ra joateko gogoa etorri jatan, eta an nengoela zera gogoratu jatan, ez nebala ondo begiratu Olio Mendiko arrian zein aldetara begira egoan eskumako oiña eta zein aldetara ezkerrekoa, eta barriz be ara itzulita zainzailleai artaziak emon neutsezala, uste. dot.

Eta Oliba Menditik bera netorrela monastegiko morroi bat nigana etorrela ikusi neban, makilla andi batekin oso asarre, eta ni joteko keiñuak egiten ebazala. Eta nigana eldurik, besotik artu nindun, eta nik ez neutsan gogorrik egin. Baiña ala-eta-guzti-be gizon arek ez eus-

tan aske ixten. Bide onetan alan preso niñoala poz andia artu neban, nire. .gaiñean Kristo ikusten nebala uste nebalako. Eta poz onek ugaritasun andiz monastegira eldu arte iraun eustan.

JERUSALEN'DIK EUROPA'RA

Urrengo egunean, irailak 23, erromesak gauetz eta isilka jenizaroen bildurrez, itxasorako bide artu eben. Baña bidean Ramleh erriko gobernariak erromesak baitu egin zituan, bakotxak 6 dukat eta soiñeko bat ordaindu arte. Azken batean, zelan edo alan, Jafa'ko kaira eldu ziran, eta an turkiar zainzailleai agur egin eutseen, baiña ez aurretik dukat mordo ederra emon barik.

Erromesak Lur Santuetan otoitzean ogei egunez egon ziran bitartean ontziko mariñelak, erromesen janari eta edariai esker, egun alaiak emon ebezan, eta itsaso zabalean egozala, biderako janariak eta edariak falta zirala konturatu ziran, eta gaiñera, aizerik ezean, ontziak itsasoan ez eban aurrera andirik egiten. Itsaso erdian egarritu ziran eta ontziko nagusiak erromesen egarria zelan-bait asetzeko ur ustela arda garratzaz nastuta emoten eutsen edateko. Askok osasuna galdu eben, eta Holandar bat il zan eta itsasora bota eben.

Aizea barriz jotzen asi zanean ontziko Nagusiak itsas-bidea galdu egin eban, eta Txipre'ko Salinas kairaiño 13 egun emon ebezan. Ia bi aste nekez josiak, baiña Iñigo'k ez deusku olakorik ezer esaten.

TXIPRE'TIK ITALIA'RA

Txipre'n be neke barriak. Iñigo'k kaian jakin eban, Italia'tik Txipre-raiño len ekarri eban "Negrone" gobernariaren ontzia amar egun aurretik Italia'rantz urten zala. Eta orain zelan Benezia'ra itzuli?

Iñigo'ri berari edesten itxi dagiogun:

"Txipre'ra eldu ondoren erromesak, bakotxak al ebanez, ango ontzietan banatu ziran. Kaian iru edo lau ontzi egozan Benezia'rakoak. Bat turkiarrena, bestea ontzi txiki eta zarra zan, eta irugarrena ontzi aberatsa eta sendoa, Benezia'ko gizon aberats batena. Ontzi onetako Nagusiari erromes batzuk Iñigo mesedez eroan egiala eskatu eutsoen, baiña arek ez eukala dirurik jakin ebanean, barreka erantzun eban: santua ba'da

Santiago 'ren antzera uren gaiñetik ibilliz joan daitela, edo olako zerbait. Baiña ontzi txikiko nagusiak oso errez artu nindun bere ontzi zarrean.

Goiz batean aizea alde egoela urten giñan itsasora, baiña arratsaldean ekatx gogorra etorri jakun gaiñera, eta ontziak bata besteagandik banatu ziran. Gure ontzi

txikia larri ibili zan, baiña azkenean Italia 'ra eldu zan. Ontzi nagusi aberatsa Txipre'ko ugartearen ondoan galdu zan, eta jendea bakarrik atera zan onik. Turkiarren ontzia bertako guztiekin galdu egin zan.

Gure ontziak Italia'ko Apulia aldean lurra artu eban.

GOIKOETXEA IÑAKI, S. J.

EZEBEZEZ JANTZIRIKO NESKEA

Elvira Martin Garcia
(Desde la otra vertiente)

Neskea asko atsegin izan yatan!
—Ezebezez jantziriko neskea—.
Gorputz guztia zan, aizea.
Aizea aren aurpegia.

Munduko gauzakaz jantzi eben
—neskeak negar egiten eban—.
Bere aizea kendu eutsen,
dana zan eta, ezebez.

Laran-lorazko udabarria

—neskeak abestu egiten eban—.
Aize zuria zan aren gorputza.
Aize zuria aren arimia.

Neskea ez nuan barriro ikusi.
—Ezebezez jantziriko neskea—.
Bakarrik aizeak dakarztat zoli
abauba abestien dardarea.

MUNIATEGI-TAR SABIN

MAITE DAGIGUN ABERRIA

"Errukarria" abestiaren doiñuz abestu leiteke.

Aspaldian ez du gure erriak
bakerik ikusi,
baiñan laster da izango
azke ta nagusi.
Gure etsai amorratuak
nai gaitue galdu,
gure izate ta legak
betiko zapaldu.

Euzkaldun danok batu gaitezen,
zaindu gure Aberria,

zutik ta ernai kemenki danok
agertu daigun arpegia. JU!

Euzkadi dogu guk Aberria,
maitatu dagigun;
ager gaitezen bildurrik gabe
egizko euzkeldun
Mintzo euzkeraz gizon eta andre
betiro edonun,
Euzkadi eta Euzkera beitez
gure len maitasun.

GOIRIA

BOLIBAR ASKATZAILLEA

Oin berreun urte jaio ziñean
Venezuelan Caracasen;
gaztetandikan askatze-griña
zure barnean sortu zen;
Erririk-erri, mendirik-mendi
saldiz t'oiñez ibil ziñen.
Españapean ziran sei erri
osorik aska zenduzen.

Orregaitik gaur mundu osoak
zaitu Bolibar txalotzen;
guztiak dabe ao batean
zure izena goratzen.
Zure egite arrigarriak
danak dituzte aitortzen,

askatasuna maite dabenak
gogoz dautzue eskertzen.

Euzko odoloz zeunkan Bolibar,
izenak dun lez agertzen;
t'euzko odol orrek jarri zinduzan
bide barriak zabaltzen.
Gartsu-gogotsu ibilli ziñan
joputasunak zuzitzen,
Españapean ziran erriak
buztarripetik askatzen.

Gure Euzkadik ez du oraindik
askatasuna ikusi,
baiña zorunez ikusko dugu
bere jabe ta nagusi.

Gure etsaiak joputza-katez
nai leuke lotu ta ersi,
Zutik-anaiok, kate loitsarrok
kemenki daiguzan ausi.

Bolibarrek lez zin daigun danok
Euzkadi askatutzia;
Euzkadi baita euzkotarrentzat
bakarra... geure-geuria.
Ezin ditugu ar aberritzat
España ezta Prantzia,
Gora ta gora gaur eta beti
Bolibar Askatzaillea.

AINGERUTXOA ZERURA

Seaskatxoan dago aurtxo
ilten eriotz-atean;
bere ondoan ama gaxoa,
samin-ituna barnean.

Ume gaxoak abots makalez
seaskatxotik diñotso:
zergaitik zagoz itun-negarti?
zergaitik goibel amatxo?

Zuk ez negarrik, ama laztana,
artu nire azken mosua;
laster ilko naz eta pozarren
zabalik dakust zerua.

Agur amatxo, zerura arte,

ez dot nai bizi munduan;
gaurdanik zu-zai aingerutxo bat
izango dozu zeruan.

Zoaz ba alaba, zoaz zerura,
artuizu nire patxo
ez aztu gero oin zeru goian
zure amatxo gaxoa.

Eta umeak bere begi ta
espanak itxi ebazan,
eta aingeruen talde-artean
zeru aundira joan zan.

(Bilbo - 1930)

MAITE DOT EUZKADI

Maite dot nik Euzkadi
aspaldi batetik,
maite dot nik Euzkadi
txiki-txikitatik;
maite dot nik Euzkadi
jaio nintzanetik
euzkotarrak ez dogu
beste Aberririk,
ez doguz Aberritzat
España, ez Frantzirik.

Gaurko sozialistak
Ucederen antzera,
ukatu gura dabe
gure izakera;
Auxe izan da beti
Españan jokera,
baiña ez dogu iñoiz
egingo atzera,
Euzkadi askatzeko
leiatsu aurrera.

Esnatu ta zutitu
euzkotar anaia,
zaindu dagigun danok
gure Aberria;
Jainkoak emondako
sorterri maitia,
ez daitela berakin
jabetu etsaia,
askoz obe litzake
betiko iltzia.

ZUZENTASUNA

Asko erabilli oi da gaur zuzentasuna itza. Bai aoz, bai itzaldietan eta bai liburu ta aldizkarietan. Andikiak eta menpekoak, ugazabak eta langilleak, idazleak eta izlariak, danak aitatzen dabe zuzentasuna. Danak dagie itz berari buruz. Eta era ezbaridiñetan. Danak ez dauke iritxi bardiña. Zuzentasunaren eskubideak baztertuta ta ukatuta dagoz, aaztuta... eta gaur iñoz baiño be geiago. Arrain andiak txikia iruntzi ta jan. Naziño indartsuak menperatuta daukez txikiak... Indarrak agintzen dau. Bardin pertsonaren eskubideak eta errienak... baztertuta dagoz.

Munduan ez da zuzentasunik. Itz ederra zuzentasuna, baiña aztuta... zapal dutata zuzetasunik bariz ez da bakerik, ez zorionik, ez alkartasunik, ez aurrerapiderik. Ez da onik ezer. Zuzentasuna da bakearen, zorionaren, alkartasunaren eta aurrerapidearen oiñarria. Kezka... bilburra... larritasuna ta artegatasuna oartzen da zuzentasunik ez dan naziño ta errietan.

Erriak bakea gura dabe, baiña zuzentasuna bide dala, oiñarri dala.

Agintariak bakea agintzen dabe, eskeintzen dabe euren itz eta agintzetan. Baiña ez dira zintzoak au esan eta agintzean.

Gizona egoista andia ba... ta berari egoki jakona bakarrik dakus... zuzentasuna zapaldu dagie... euren alde jokatu beti danean...

Onela izan da beti ta aurrerantzean be onela izango da zoritxarrez.

Alperrikoak izan dira orain arteko itunbeak... papera besterik ez...

Indarrikako papera. Alperrikoak orobat legeak... batzarak... Zuzentasuna onoiemenik onena, aintzagarriena, bikañena ta munduaren oiñarria zala esan eban Aristoteles jakitunak. Eta oneik olan-da zuzentasuna zer da? Bakoitzari berea emotea. Orixe. Dana esanda, dana azalduta dago itz orreitan. Bakoitzari berea. Naziño bakoitzari erri bakoitzari berea; pertsona bakoitzari berea.

JAUNGOIKOAGAN BA-DA ZUZENTASUNA

Jaungoikoak bear dauana damotso bakoitzari mundu onetan bere elburua lortu dagian. Naizta ezbaridintasanak izan Jaungoikoak bear dauana damotso bakoitzari gorputzari buruz. Eta gogoari buruz barriz, gorputzari buruz gitxiago damotsonari geiago damotso sarritan.

Jaungoikoak bearrezkoak diran doaiak eta laguntza emon oi dauz bizitzan. Beste bizitzan Jaungoikoa zuzena izango da saria emoten. Bakoitzaren egiteak izango dira neurri. Maitasuna izango da neurri sari ori artzeko. Gogoz emondako ur-tantak saria izango dau. Zigorra be zuzena izango da. Gaizki egindakoa izango da neurri. Bere zuzentasunaren maitasunagaitik zigortuko dau Jaungoikoak gizona. Orobat zuzentasunean eta maitasunean zelan jokatu dauan izango dau gogoan Jaungoikoak gizona sarituteko.

GOIRIA

ZER

1981-2-17

BILBAO

Ene lagun begikook:

Artu-barri dodan azkenengo zenbakian argitara dozuen olerki bati buruz oartxo bat egin bearrean nauzue.

Neurea ba'litz bezela dagerzue FEDEGABEZIA TA FEDEA izenburu daroan Unamuno'ren sonettoa. Ariñago be argitara dozuez aren zazpiren bat olerki nik euskeratuak. Edozein irakurle zur danak igarriko eban azkenengo au be berarena dala; baña, badaezbada, eskertuko neuzkizue urrengoko alean okertxo au zuzenduko ba zendue.

Ez nintzake ni aserre, aren oiñetakoen zoru mallak lortu aal izan ba'neuz.

Eta geiago barik, milla esker eta nere agurrik beroenak.

BIDAGUREN

JUANTXO-TXIKIREKIN JOLASTEN (22)

Juantxo-txikik jolas-gurea dauka? Jolasean lagundu egiozu eta berarekin jolastu zaitez. Jolasean erakutsi. Zergaitik, ez...?

—Tira, tira, umekeririk esan barik...

—Oso ederto emongo zenduke, emon be.

Eguna igaroteko familiarekin doazenean, zenbait gurasok uste dabe, umeak jolastu bear dobela, baiña eurak ez. Eurak serio-serio ibilli, beruna baiño astunago, gau-illuna baiño illunago. Argirik, ez. Alaitasuna sortuko ba'da, umetxoen aldetik sortu bearko da; guraso orreik ez dabe ezertxo be egingo alaitze aldera.

Ez, guraso, ori ez. Ez litzake izan bear zure jokabidea. Zeuk alaitu bear dozuz zeure seme-alabak. Lagundu, beintzat, alaitzen eta ez "pasota" baten antzera egon euren aurrean. Eta, jolasean erakutsi.

—Nik ez dakit oraingo jolas barririk.

—Zaarrak irakatsi edo barriak ikasten alegindu, eurari irakasteko. Ez dozu bereala topatuko ori baiño bide errezagorik zeure Juantxo-txikiren lagun izateko.

Jolasa tranparik gabe. Jolasean tranparik ez dala egin bear irakatsi umetxoari eta jokoaren aginduak bete zeuk lenengo eta gero ondoren Juantxo-txikiri beteten irakatsi.

Galtzen be ikasi bear da jokoan gabiltzanean. Irabazleak bere saria jasoten dau eta galtzaillea zoriondu egizu garbi jokatu daualako.

Kanta-kantari. Ori be jolasa dozu eta oso jaku gogoko erritarroi. "Txapel bat, euskaldun bat; txapel bi, euskaldun bi; iru txapel, abes-batza edo orfeoia".

Kantatzea jolas pozgarria da. Eta zuk kanta zaarrak eta barriak ikasi seme-alabatxoeri irakasteko. Orfeoi bat etxean sortzea ez da esku guztietan dagoen gauza erreza; baiña, etxeok alkarrekin abestea, zein dan zoragarria...!

*

Musika eta abestiak ba-dauke gizona eziten laguntzeko aala. Ezi-bide bat dogu. Gaurko egunez edozein musika-mota eskuetan daukagu. Musika oneik bereizten erakutsi Juantxo-txikiri. Gustoa eta belarriak eziten lagundu, aal ba'dozu. Zeure seme-alabak ume-umetatik Euskalerriko musika ederrean murgildu egizuz.

ARRINDA'tar ANES



Bizkaia beti



Gure erriaren aurrerapenagaitik.

Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.

Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.

Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

Bizkaia beti.

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CA~A IJE AHORROS
VIZCAINA